



Asteburuko egunak heldu zaizkio Durangoko Azokari. Ohiko formatuaren itzuleragaz jendetza batu da egunotan Landa-ko Gunean. • 23-29



Olaia Intziarte Ahotsenean.

Ahotseneako kontzertuak zuzenean 'anboto.org'-n

Azoka • Ahotseneako kontzertu guztiak 'www.anboto.org' webgunean jarraitu daitezke.



Datu demografikoak

Durangaldea • Durangaldeko datu demografikoen azterketak erakusten duen legez, Durangaldeko biztanleria %12,24 hazi da azken hogeitun urteetan. 60 urtetik gorakoekin adin tartea da gehien hazi dena; %44,72 egin du gora. Ondorioa: zahartzen gabiltza. • 2-3

ARGENTINAKO EMPANADAREN BENETAKO ZAPOREA HELDU DA DURANGORA!



Eskaneatu QRa eta ezagutu guri buruz gehiago!

BISITA GAITZAZU: 📍 FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 3 | 📞 623 168 280



Biztanleriaren eboluzioa Durangaldean 2001-2021

Adin tartearen arabera

anboto

■ Biztanleria ■ <20 urte ■ 20-59 urte ■ > 60 urte



Iturria: Eustat, Nastat, Ine

saretzen

Durangaldeko biztanleria %12,24 hazi da azken hogeitun urtean

Durangaldeko herrietako datuei erreparatuta, gizartea zahartzen ari da; gehien hazi den adin tartea 60 urtetik gorakoena da. %44,72 egin du gora

DURANGALDEA • M.Z. / J.G.

EITBk eta TOKIKOM komunikabideen sareak sinaturiko lankidetzak akordioaren emaitza da Saretzen proiektua. Eta elkarlan honen lehenengo emaitza erreportaje hau da: Hego Euskal Herriko demografia jorratzen duen albistea.

Azken hogeitun urteotako bilakaera demografikoa oinarri hartuta, datu kazetaritzan sakontzea da helburua. Horretarako, Durangaldeko azken bi hamarkadetak herrietako datu demografikoak aztertzeaz gainera, bilakaera horrek duen hainbat ertz azalera da asmoa. Hego Euskal Herriko biztanleria handitu egin da azken 20 urteotan; hau da, 2021ean 2001ean baino jende gehiago bizi da, %8,3 gehiago. Durangaldean ere hazkunde garrantzitsua egon da, %12,24koa. 2001ean 71.711 biztanle zeuden eskualdean, eta 2021ean 80.493 daude. Durangaldeko hazkunderik handiena 2007an eta 2008an egon zen, populazioaren %1,64ko eta %1,33ko gorakadagaz, hurrenez hurren. 2014an eta 2021ean, ostera, desazkundera egon zen. Urte bietan %0,28ko beherakada.

Herrika, Atxondo eta Iurreta dira demografikoki beherantza egin duten herri bakarrak. Iurretak 4.213 biztanle zituen

2001ean, eta 3.639 (%13,93 gutxiago) 2021ean. Atxondoren kasuan, 2001ean 1.410 herritar zeuden erroldatuta, eta 2021ean 1.373 (%2,63 gutxiago). Beste herri guztietan, biztanle kopuruaren hazkundera nabarmena izan da: Abadiñon %12,24, Berrizen %7,07, Durangon %16,49, Elorrioren %6,07, Garain %27,09, Izurtzan %3,67, Mallabian %3,87, Mañarian %9,78, Otxandion %26,14, Zaldibarren %9,57 eta Zornotzan %17,52.

Pertsonen mugimendua

Jaiotzak beherantza badoaz, zelan da posible hazkunde demografiko hau gertatzea? Balantze negatiboa pertsonen mugimen-

Herrika, Atxondo eta Iurreta dira demografikoki beherantza egin duten herri bakarrak

duak irauli du. Biztanleriaren mugimendua ari garenean, zenbait fenomeno kontuan izan behar dira: barne migrazioa (autonomia erkidego bereko udalerririk batetik bestera zein autonomia erkidego batetik bestera: EAE-Nafarroa), estatu barruko migrazioa (Espainiako Estatua-

ren barruko beste herri batetik) eta kanpo migrazioa (Espainiako Estatutik kanpoko herrialde batetik etorritakoak).

Zahartzen gabiltza

Gizartea zahartzen dabilela da

datu demografikoen ondorioz. 2001ean 60 urtetik gorako 16.035 pertsona bizi ziren Durangaldean, eta 2021ean 23.207. Hamarkada bitan %44,72 hazi da adin tarte horretako biztanleen kopurua. Ez da berria biztanleria

zahartzen dabilela, eta Durangaldea ez da salbuespena. Baina paradigma aldaketa horrek eragina du hainbat arlotan; tartean, zaintzan.

Pertsona nagusiak artatzeaz dagokionez, datuek argi erakus-

Durango 30.000 biztanlera heltzen dabil eta Zornotzak 20.000ko langa gaindituko du laster

Durango eta Zornotza dira eskualdeko biztanleria gune jendetsuenak. Durangok laster pasatu dezake 30.000 biztanleen langa, eta Zornotzak 20.000 biztanleena.

Durangori gutxi falta zaio 30.000 biztanle izatera heltzeko. INEren datuen arabera, 2021. urtearen hasieran 29.935 biztanle zituen. Gislan enpresak Durangoko Udalarentzat egindako ikerketa baten arabera, Durangok %21,7ko biztanleria hazkundera izan du azken bi hamarkadetan. Epealdi horren barruan jaiotako durangarrak epealdi berean hil direnak baino mila inguru gehiago izan dira. Horregaz batera, denbora tarte horretan Durango-

ra bizitzera etorri direnak herrietik kanpora joan direnak baino 4.500 inguru gehiago izan dira. Ildo horretan, hurrengo 15 urteetan dinamika demografikoak mantentzen badira, Durangoko biztanleria %8,5 haziko dela eta 32.300 biztanlera helduko dela aurreikusi dute. Datu hori aintzat hartuta, etorkizuneko etxebizitza politikak egitea da asmoa. Gislan kooperatibako Julen Landaren esanetan, Durangaldea eta Durango biztanleria hartzen ari dira. Gaur egungo Euskal Herriko geografia sozioekonomikoan kokagune garrantzitsua da Durangaldea. "Durangoko kasuan hain zuzen ere, beste udalerrietatik datorren presioa aintzat

hartu barik ere, bertako bizikidetzaren kopuruak gora egingo du biztanleria hazten eta bizikidetzaren unitateen tamaina txikitzen doan neurrian. Horrek etxebizitza parkearen gaineko presioa eta etxebizitza beharri loturiko problematikak areagotuko ditu ezinbestean", gaineratu du Landak.

Zornotzaren kasuan, INEren 2021 hasierako datuen arabera, 19.576 biztanle zituen. Laster pasatuko du 20.000 biztanleko langa. Uztaileko Plan Orokor berrian 1.449 etxebizitza gehiago eraikitzea aurreikusi zuten. Beraz, etxebizitza gehiago eraikita, posible da zenbaki hori laster gainditzea.

ten dute zaintza parekidetara oso urrun dagoela. Lan sektore legez, arlo prekarizatuaz izaten jarraitzen du. 2019ko datuen arabera, 630.000 etxeko langile zeuden estatuan, %95 emakumeak. Horietatik %42, etorkinak. Generoaren arabera arrakala icebergaren tontorra baino ez da, eta zaintza desoreka horren erdigunean dago. Zaintzan dabilzan egoitzetako beharginak ere urteak daramatzate lan baldintza duinak eskatzen.

Geroago eta zerbitzu gehiago beharko da zahartzen dabilen gizartearen beharrezko erantzuteko. Aste honetan bertan Sergio Murillo BFAko Gizarte Ekintzarako diputatuak Bizkaia Irratian aurreratu duenez, Aldundiak nagusien egoitza berri bat egingo du Durangaldean. Egoitza hori non egin baloratzen dabilta oraindino, baina Abadiñon edo Iurretan izango da.

Familia zaintzaile

Emakumeak dira zaintza lanak egiten dituztenak. Mendekotasuna duten pertsonen kasuan, familiak zaintza hori bere gain hartzen duenean zaintzaileen profila oso zehatza da eta urteen joan-etorriagaz ez da aldatu. Esther Alonso Mankomunitateko Zaindu programaren arduraduna da. Egitasmo horren helburua zaintzaileei zerbitzua eskaintzea da. Izan ere, nork zaintzen du zaintzailea? "Urteak daramatzagu zerbitzu hau eskaintzen eta profila ez da aldatzen. Egoera hau azalratzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Bestalde, zaintza lanak modu positibo batean baloratu gura ditugu", azaldu du Alonsok. Ildo horretatik, zaintza lanak beharrezkoak dira gizartean, baina ezin da izan emakumeen gain dagoen ardura. Zaintza gizarte osoak hartu beharko luke bere gain. Emakumeak zaintzaile diren eredu oso injustua da", azaldu du Alonsok.

Zaintza komunitarioa

Familia askorentzat gatxa izaten da pertsona nagusien zaintza kudeatzea. Egoitz Zabala Sagarna durangarra Aita Meniko zaintzarako arreta arduraduna da. "Zaintzeko era asko aldatu da. Orain 20 urte gure aitita-ama mak etxean geratzen ziren. Batez ere, emakumeak izan dira pertsona horien zaintzaileak. Azken urteetan beste bide batzuk joan dira zabaltzen. Aukeratariko bat pertsona horiek egoitzetara eramatea da. Familientzat ez da erraza. Egoitzekin estigma bat egon da, baina geroago eta gehiago ezagutzen ditugu eta estigma hori badoa kentzen. Gainera, egoitzetan dauden profesionalak oso profesional onak dira", azaldu du Zabalak.

Batzuetan, familiak dira bakarrik bizi ezin den pertsona egoitza batera eramatea erabakitzen dutenak. "Geroago eta kasu gehiago ikusten dugu erresidentziara joan gura dutela dioten



EGOITZ ZABALA

pertsona nagusiak. Gauzak ondo egiten diren seinale", adierazi du Zabalak. Etorkizunera begira, argi du zein izango den egoitza eredu: "Etxe giroko egoitza txikiak sortzea da etorkizuna. Zaintzak geroago eta garrantzi handiagoa izango du gizartean. Geure artean zaintzeko ohitura hartu behar dugu, zaintza komunitarioa. Pandemian asko ikusi da, eta gehiago elkar zaindu genuen eta gehiago elkar ezagutu genuen. 92 urteko bizilagun bat dugu gure etxe blokean. Ez dugu zaintzen, baina beragaz arduratzen gara. Eta bera gugaz ere bai".

"Hasieran ez nekien lan kontratua izatea nire eskubide bat zela; niri egiten zidaten mesede modura ikusten nuen"

2007an Boliviatik etorri zenetik zaintza lanean dabil Olga Claire Cardoso. Hasieran barne- eta kanpo-zaintzetan aritu zen. Azken urteetan nagusien egoitzetan dabil.



DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Zelan hasi zinen zaintza lanetan hemen?

Dokumentaziorik barik etorri nintzen eta hiru urtean ezin izan nuen paperik lortu. Zaintza lana behar zuten familiek ez zuten eragozpenik ipintzen. Hasieran kontraturik barik ibili nintzen. "Guk behar zaitugu, baina zuk gehiago behar gaituzu", zen pentsaera. Helduberritan, etxerik barik, barne-zaintzan aritzea irtenbide bat zen, horrela etxe bat geuekalako bizitzeko. Pertsonalki, niretzat bokazioa da nagusiak zaintzea. Umetan birramama zaintzen nuen, baina ez behartuta, gustatzen zitzaidalako baino. Zaintzarena barrutik datorkidan kontua da. Beraz, hemen ez zitzaidan hainbeste kostatu.

Zelako esperientziak izan dituzu hemen?

Esperientzia txarrak entzun izan ditut, baina ez da nire kasua. Zorrea izan dut eta familiek ondo tratatu naute beti. Baina, bestalde,

paperak lortu arte kontraturik barik ibili nintzen eta astelehentik astelehenera lan egiten nuen, jaiegunik barik, kontratua egin ziezadaten. Alde horretatik, ez dut uste behar den moduan portatu zirenik nigaz. Hasieran ez nekien lan kontratua izatea nire eskubide bat zela; eurek niri egindako mesede modura ikusten nuen. Orain ez nuen onartuko, eta horrela jokatzeko aholkatzen diet denei. Zure lanari balioa kentzea da; barne-zaintzan zabilzanean, zure bizitza osoa eskaintzen diozu lanari. Ez neukan astirik beste ezertarako. Gerora, beste hainbat etxetan lan egin nuen, askotan kanpo-zaintzaile modura, orduka.

Sasoi hartan, zein izan zen unerik gaxena?

Erabaki gogor bat hartu behar nuen: diru apur bat lortu eta gero nire sorterrira bueltatu seme-alabengana edo hemen geratu, paperak lortzen borrokatu eta seme-alabak hona ekarri. Gau

asko eman nuen ohean horretan pentsatzen. Azkenean geratzea erabaki nuen eta gaur egun seme-alaba bi hemen daude.

Noiz eta zelan igaro zinen adinekoen egoitzetan lan egitera?

Geriatricaren inguruko ikastaro bat egin nuen. Beti gura izan dut nagusien egoitzaren batean lan egin, jende gehiagorengana heltzen zarelako eta nik bihotzetik egiten dudana lana delako. Hainbat egoitzetan nabil. Ekonomikoki igarri dut aldea, orain apur bat gehiago irabazten dut eta. Baina, batez ere, bizitza kalitatean igarri dut aldea, orain seme-alabekin egoteko denbora gehiago dut eta. Sektore honetan, unerik gogorrena lan erreformagaz etorri zen. Hiru urtetik behera genbiltzanok lan barik geratu ginen momentu hartan. Une gogorra izan zen denontzat. Gerora, beste toki batzuetan ibili naiz. Ekainetik Jose Miguel Barandiaran egoitzan nabil eta oso pozik nago bertan.



ZU NON, HAN DA!
57. DURANGOKO AZOKA

LIBURU AURKEZPENAK

Abenduak 13. 19:00

Harkaitz Cano. "Pozaren erdia". Hitz (Durango)

Abenduak 20. 19:00

Anari Alberdi. "Gari eta Goroldio". Arteka (Durango)



Antso Estegiz kalea, Aramotz, Madalena plaza eta Andra Mariko elizpea berritzeko inbertsioak nagusi Durangon

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak datorren urteko aurrekontuak onartu dituzte. EAJk eta PSE-EEk kontra egin dute



Durangoko Antso Estegiz kalea.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Udalak eta haren zati diren egitura autonomoek 40.540.000 eurotik gorako diru poltsa izango dute datorren urtea kudeatzeko, iaz baino %4,73 gehiago. EH Bilduko Iker Urkiza zinegotziaren iritziz, "oso aurrekontu onak dira, parkeak, plazak, kaleak, alderdi sozialak eta ingurumenari loturikoak berreskuratzeko balioko dutenak. Udalak Andra Mariko elizpea berritzeko proiektua (350.000 euro), Antso Estegiz kalea berritzeko lehenengo fasea (639.525) eta Aramotz auzoaren berrikuntza lanak (1.500.000) ipini ditu inbertsiorik garrantzitsuenen adibide modura. Horrez gainera, Bartolome Ertzilla Musika Eskolako teilatua konpontzeko lanak eta komertzioa sustatzeko

diru partiden igoera aipatu ditu. Herriaren Eskubidea taldeko Jorge Varela "Durango herritarrentzat berreskuratzen jarraitzeko" aurrekontuak direla azpimarratu du.

Oposizioko alderdiak ez dira bat etorri horregaz. EAJk aurkezturiko 13 zuzenketa partzialetatik 6 onartu ditu gobernu taldeak. Adinekoen ongizate politiketarako eta kirolaren sustapenerako neurriak dira denak. EAJk beste proposamen batzuk albo batera uztea kritikatu du. Tartean, Tabiran futbol zelai berri bat egiteko eta herria zeharkatuko lukeen hiri-autobus bat ipintzeko proposamena. "Pozen gara ekarpenetarako batzuk aurrekontuan txertatuta daudelako, baina konfiantza askorik ere ez dugu, orain urte biko aurrekariak ikusita", adierazi du Josune Escotak. PSE-EEk ere aurrekontuen kontra egin du. Jéscica Ruiz bozeramaile sozialistaren berbetan, aurrekontuek "ez diete ia batere kasurik egiten adinekoei eta langabeei".

Durangoko kirol instalazioetan zerbitzu orduak "murriztu" egin direla salatu du ELA sindikatuak

Alarma egoeran egondako murrizketak gaur egun indarrean jarraitzen duela diote. Sindikatuak bilera egin gura du udal ordezkariekin "egoera aldatzeko"

DURANGO • E.H

Durango Kirolak entitateko beharginak, eta zehatzago esanda azpikontrataturiko Sedena S.L. enpresako beharginak, kexu dira, euren berbetan "murriztu" egin direlako kirol instalazioetako zerbitzuak. ELA sindikatuak Durangoko Udala egin du egoeraren erantzule. Sindikatuaren esanetan, "normalizatu" egin dira pandemia sasoiaren ziren murrizketak, eta izurria baino lehenago Durangoko kirol zerbitzua astean 140,5 ordukoa zela. "Baina kopuru hori murriztu egin zen pandemian, eta orain gutxira

arte zerbitzuak astean 81 ordu zituen. Hala ere, eta dagoen eskari handia dela eta, jarduerak astean 94 ordura izatera pasatu dira",

Lehen, 140,5 orduko kirol zerbitzua ematen zen astean; gaur egun, 94 ordukoa

"Erabiltzaileak geroago eta jarduera gehiago eskatzen dabilta eta ez ditugu murrizketak ulertzen"

adierazi dute ohar batean. ELAk ez du "orduen murrizketa" ulertzen, kontuan hartuta "erabiltzaileak talde gehiago eskatzen dabilzala jardueretarako". Fitness aretoko monitoreen lanaldia ipini dute adibide modura. Lanaldia murriztu egin zaiela diote, nahiz eta aretoan "1.020 erabiltzaile zeuden" izurriaren aurretik, eta "1.275" dauden gaur egun.

Sindikatuaren esanetan, beharrezkoa da alde biak elkartzea eta konponbideetara iristea egoera aldatzeko, besteak beste, "pandemiaren aurreko zerbitzua berreskuratuta".



Ima Garrastatxu izango da EH Bilduren hautagaia Durangon

DURANGO • J.D./E.K.

Durangoko gaur egungo alkate Ima Garrastatxu izango da EH Bilduko zerrendaburua maiatzeko udal hauteskundeetarako. Halantzik jakinarazi zuten joan zen barikuan San Agustin Kulturgunean egindako ekitaldian. "Azken lau urteetan inflexio puntu bat sortu dugu Durangon. 40 urteko gobernu neoliberalen aurrean alternatiba sendo bat dagoela erakutsi dugu", azaldu zuen Garrastatxuk.



Durangon Jéscica Ruiz izango da PSE-EEren alkategaia

DURANGO • J.D./E.K.

PSE-EE alderditik Jéscica Ruiz izango da Durangoko alkategaia maiatzeko hauteskundeetan. 2019an ere bera izan zen alkategaia, eta gaur egun Durangoko alderdi sozialistaren bozeramaile da. Bere hautagaitza Benita Uribarrena parkean aurkeztu dute, asteon. Eneko Andueza alderdiko idazkari nagusiak ekitaldian parte hartu zuen. Ruizek azaldu zuenez, "lanpostu duinak" sortzea izango du lehentasun.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko abenduaren 9a
21. urtea - 917. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Kontseiluak euskararen biziberritzea adostasunetik lantzera deitu du Durangon

Idurre Eskisabel Larrañaga da Euskalgintzako Kontseiluko idazkari nagusi berria



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Kontseiluak bere 25. urteurrena ospatu du asteon Durangon, orain mende laurden sorturiko egun eta leku berean, hain zuzen ere. Astelehen goizean, San Agustin Kulturgunea leporaino bete zen Euskal Herriko bazter guztietatik etorritako eragile euskaltzaleekin. Ekitaldian, 25 urte hauetako ibilbidea erreparatu eta aurrera begirako erronkak markatu zituzten. Orogen gainetik, baina, izen propio bat gailendu da, idazkari nagusi berriarena: Idurre Eskisabel Larrañaga (Beasain, 1970). Bera da, Paul Bilbao Sarria ordezkaturatuta, Kontseiluko lemazain berria. Urte luzez Euskaldunon Egunkarian zein Berrian ibilitakoa, kazetaritzan eta antropologian lizentziatua da Eskisabel, eta Euskal Herriko Unibertsitateko kazetaritza irakaslea da gaur egun.

Bere berbaldian, euskararen biziberritzea "kolpetik" ez dela etorriko adierazi zuen, biziberritzeak "zerikusi gehiago duelako jario

etengabeko lan isilarekin". Alde horretatik, "adostasun soziala", euskararen "ezagutza unibertsala eta erabilerarako eremu osoak" sortzera deitu du. "Adostasunean sakontzea izango dut helburu, euskarak zerbait behar badu politika delako, letra larriz idatzitako politika, siglez haragokoa", esan zuen Eskisabelek. Aro digitalak zein jendarte geroago eta homogeneoagoak dakartzaten erronken aurrean, Ipar Europako estatuetera eramanean du begirada. Han ekoizten diren ikus-entzunezkoak, eduki digitalak, hizkuntza txikian eginagatik, arrakastatsuak direla iritzita.

Euskararentzako "azeleragailua" San Agustin Kulturgunean egindako ekitaldian, Kontseiluan egondako aurreko arduradunek ere parte hartu zuten, Xabier Mendiguren eta Paul Bilbao, hain zuzen ere. Mendigurenen iritziz, euskalgintzako eragileen arteko "batasuna" izan da urteotan Kontseiluak egin-

dako ekarpenik handiena. Dena dela, "jende gehiagorengana hurbiltzeko" beharrez dagoela ere gaineratu zuen. Bestalde, Paul Bilbao euskararen berreskurapenak "intentsitatea" behar duela adierazi zuen. Alde horretatik, "azeleragailua" sakatzera gonbidatu zituen bertaratutakoak.

"Euskararen biziberritzeak jario etengabeko lan isilarekin du zerikusia"

Alizia Iribarrenek, AEK-ko koordinatzaile nagusiak, eskerrona eman zion Bilbaori. Azken honi ohorezko agurra eskaini zioten dantzari batek eta txistulari batek. Ekitaldian Eñaut Elorrieta musikariak eta Castillo Suarez idazleak ere parte hartu zuten. Anabel Arraiza aktorea arduratu zen aurkezpen lanak egiteaz.

Zornotzako aurrekontuen erditik gora, "zerbitzu publikoak indartzera"

ZORNOTZA • J.D./E.K.

Zornotzako Udalak 33.256.350 euro izango ditu datorren urtean, aurten baino bi milioi euro gehiago. Aurrekontuaren erdia baino gehiago, 18.140.369 euro, "zerbitzu publikoak indartzeko" erabiliko dituzte.

Andoni Agirrebeitia alkatearen esanetan, "familiengan, adinekoengan eta emakumeengan" ipini dute arreta: "Horiek dira gure lehentasuna eta erantzukizuna". Bestalde, aurrekontuaren laur-

dena baino gehiago, %28, Gizarte Ekintzan eta Berdintasun Sailean erabiliko dute, eta enplegua eta euskara sustatzeko neurriak ere hartuko dituztela iragarri dute udal iturriek.

Inbertsioei dagokienez, 2.411.000 euro Urgozi kiroldegiko egitasmorako gorde dituzte. Jauregizaharreko urbanizaziorako eta Nafarroa Zentrorako 600.000 eta 550.000 euroko diru atalak daude, hurrenez hurren.



Joan zen asteko barikuan onartu zituzten aurrekontuak.

Salerosketak euskaraz egitea sustatzeko kanpaina, martxan

Zornotzako komertzioetan 'Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz' kanpaina egingo dute urtea amaitu arte

ZORNOTZA • J.D./E.K.

Zornotzako Udalak "Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz" kanpaina hasi du, komertzioetan euskararen erabilera sustatzeko. Hain zuzen ere, dendariak, tabernariak eta bezeroak deitu ditu zerbitzua euskaraz eman eta jasotzera. Kanpaina urtea amaitu arte egongo da indarrean. Amaia Aurrekoetxea euskara zinegotziak esan duenez, "euskaldun hitzun guztioi

dagokigu euskara zaintzea eta honen erabilera indartzea, sendotzea eta hedatzen jarraitzea ere. Udaletik etengabe lan egiten dugu hori horrela izan dadin eta, kanpaina honen bitartez, lanketa horri bultzada bat eman gura dugu, zornotzarrekin elkarlanean, Zornotzan euskarak hizkuntza nagusia izaten jarraitu dezan eta zornotzarrok euskaraz bizitzen jarraitu dezagun", esan du.

ABENDUAK 11, 10:00 - 15:00

Neguko Azoka
TOKIKO PRODUKTU ETA ARTISAUAK

10:00etan Azoka hasiera

12:30etan Herri kirolak

13:30etan Trikipoteoa



Iurretan 300.000 euroko inbertsioa egingo dute Iturburuko eta Eleixaldeko espaloiegaz jarraitzeko

Iurretako Udalak 6.696.811 euroko aurrekontua izango du 2023an. 845.000 euro inbertsioetarako gorde dituzte

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak 2023ko aurrekontua lotu du, ia 6,7 milioi euro. 845.000 euro inbertsio atalera-ko izango dira eta horren erdia Etxego gaztelekuaren ingurua urbanizatzeko (150.000 euro), eta Iturburuko eta Eleixaldeko espaloiegaz jarraitzeko (300.000 euro) erabiliko dute; Deabruaren Zu-

biaren (Durango) ordez eraikiko duten pasabideagaz lotuko dute.

Bestalde, gastu arruntak %20 igoko dira, zerbitzuen KPIaren arabera igoeraren eraginez. Kale garbiketaren zerbitzua indartu egingo dute beste langile bat ipinita, maiztasunak hobetuta eta ibilgailuak elektrifikatuta. Udalak hiri-antolamendurako

plan orokorraren berrikuspenagaz eta kultur etxean energia berri-erabilgarriak eta autokontsumo elektrikoak ipintzeko proiektuagaz jarraituko du. Eta aurrekontu parte hartzaileetarako diru poltsa mantenduko du.

Kultura arloan, elkarte-sareagaz eta eskolekin "lankidetzeta estuan" lanean jarraituko dutela esan du Iñaki Totorikaguena alkateak; arlo sozialean, "desberdintasunak murrizteko eta osasuna eta ongizatea sustatzeko". Bestalde, "mugikortasun seguru eta iraunkorra duen herri irisgarria lortzeko" lan egingo dutela ere esan du. EH Bildu kontra agertu da. "Anbizioz eta umiltasunez, denon artean eraikitako benetako aurrekontuak behar ditugu, aurreikusitakoa betetzeko konpromiso serio eta arduratsuak", diote.



Eleixalde inguruko espaloia Deabruaren Zubia zegoen tokian eraikiko duten pasabideagaz lotuko dute, zebra-bide bategaz.

Iurretako kofradiek urte amaierako batzarrak egingo dituzte abenduan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako kofradiek urte amaierako batzarretara deitu dute datozen egunetarako. Domekan izango da lehenengo hitzordua, abenduaren 11n, Oromiñon. Auzoko txokoa elkartuko dira, 11:00etan. Bestalde, Goiuri, Fauste, Santa Maña eta Iurreta kofradietako batzarrak abenduaren 17an egingo dituzte. Goiuriko kofradia Ikuspegiko jangelan batuko da, 10:00etan, eta Faustekoa Bakixako ermitan, 16:00etan. Santa Mañako kofradia Amezketako eskolan batzartuko da, 17:00etan, eta Iurretakoa elizpeko lokalean, 19:00etan.

Bertako kofradiak Orozketa-ko eskolan egingo du batzarra, urtarrilaren 7an, 11:00etan.

Eguraldia lagun, izurtzarrek giro ederrean ospatu zuten Nikolas azoka martitzenean

Euskal Herri osotik etorritako 19 stand batu ziren frontoian

IZURTZA • J.D.

Azken asteetako euriak ikusita bazegoen kezka apur bat, baina martitzenean giro eguzkitsua nagusitu zen goiz-goizetik eta, eguraldiak lagunduta, jende asko joan zen Izurtzako Nikolas azokara, batez ere eguerdi inguruan. Bi-

sitariak ogia, gazta, eztia, gozoak, garagardoa, likoreak eta beste hainbat produktu erosteko aukera izan zuten azokako 19 standetan. Eusko Labeleko pintxoak jateko aukera ere izan zuten, besteak beste. Antolatzaileek ekimenaren balorazio positiboa egin dute.



Bisitariak Nikolas azokan erosketak egiten, martitzenean.

Auzoetarako bideak eta udaletxeko teilatua konponduko dituzte Garain

Udalak Beratuko bidearen tarte bat eta Urien auzoko beste bat konponduko ditu datorren urtean zehar

GARAI • EKAITZ HERRERA

Urien auzoko bidearen zati bat, Beratuko bidearen beste zati bat eta udaletxeko teilatua. Datorren urtean hiru elementu horiek konpontzea aurreikusi du Garaiko Udalak. 2023ko inbertsio nagusiak izango dira horiek. EAJk eta Herriko Taldeak aho batez onartu dituzte aurrekontuak. Udalak 621.262 euroko diru poltsa izango du datorren urtea kudeatzeko. Aurten baino %1,31 gehiago. Diru sarreraren atalari dagokionez, berrikuntza txiki bat txertatu dute. Udalak tasa berri bat ezarriko die udalerriko lur publikoetatik zehar argindarra, ura zein gasa garraiatzen

duten enpresei. Gainerako tasek, herritarrei aplikatzen zaizkien zergek, bere horretan jarraituko dute. Dauden moduan geratuko dira.

Laguntzak elkarreentzat

Diru laguntzei dagokionez, udalak handitu egingo ditu herriko elkarreentzat zein Gerediaga elkarreentzat egindako ekarpenak. Herri-antolatzen diren jaietarako diru kopuruagaz ere beste horrenbeste egitea erabaki dute. Bestalde, 50.000 euro gorde dituzte lurra erosten jarraitzeko, eta herriko historia jasoko duen egitasmo bat martxan ipintzea ere aurreikusi dute.



Garaiko udaletxea.

ABENDUAK 16-17-18

DURANGO
LANDAKO GUNEA

11:00 - 14:30
16:30 - 20:00

ZOZKETA
50€-ko bonoak

**ARTISANUAK
SORTZAILEAK
GABONETAKO
AZOKA**

antolatzailea **ERXU**

LAGUNTZAILEA
DU RAN GO
udala/ayuntamiento



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatazile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Zapatu honetan da erronka: mallabitarrak gatar eta mungiarren kontra, herri kirolen pentatloi probetan

Garitagoitia eta Mugarza mallabitarrak Fuldain eta Sabalza bikotearen kontra arituko dira, Arrieta herriko plazan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Heldu da lagun arteko afari baten bueltan irtendako desafioari aurre egiteko eguna. Zapatu honetan izango da, 12:30ean, Arrieta herriko plazan. Gorriz, Aitor Fuldain gatarra eta Xabier Sabalza mungiarra. Urdinez, Aitor Garitagoitia eta Gartxot Mugarza mallabitarrak.

Lagunak aurkari bihurtuko dira goiz batez, eta herri kirolerako bost probek erabakiko dute irabazlea nor den. 500 euro daude jokoan.

Binaka egin beharreko lana honako hau da: 30 jasoaldi 63 kiloko harriari; giza proban, lau plaza 250 kiloko harriagaz; aizkoran, 45 ontzako enbor bi; txinga-eramaten,

lau plaza 50 kiloko txingekin; eta korrika kilometro bi.

Laurak herri kirol zaleak dira, baina ez arituak. Horregaitik, esperientzia dutenengana jo dute. Asteak daramatzate gisasolatarren baserrian entrenatzen, Ioritz Gisasolaren eta Ion Gisasolaren aginduetara. Ez da erraza bihar zer gertatu daitekeen aurreikustea. Izan ere, azaldu dutenez, espezialitate bakoitza banaka entrenatu edo denak segidan egin, asko aldatzen da kontua. Dena hartu behar da kontuan, baita erremintak ere: mallabitarrak Urnietaraino joan dira aizkora berri bat erostera.

"Irabazi egin gura dugu, baina, batez ere, egun eder bat pasatzea eta bertaratzen direnei ikuskizun on bat eskaintzea da asmoa", dio Gartxot Mugarzak. Gero, denek elkarregaz bazkalduko dute.



Xabier Sabalza eta Aitor Fuldain gorritz eta Aitor Garitagoitia eta Gartxot Mugarza urdinez, Mallabian, entrenamendu egun batean.

Mallabian, kirol parke berria egiteko proiektua esleitu dute

Parkeak hainbat gune izango du. Besteak beste, padel pista bat, eskalada gune bat, bide sare bat eta bizikleta bide bat


MALLABIA • J.D.

Mallabiko Udalean egindako azken osoko bilkuran, 'Zubitegi Kirol Parkea' izeneko proiektua esleitzea onartu zuten. Mallabitarraren gizarte-, kultura- eta kirol-garapenerako aire zabaleko kirol eta aisialdirako parkea izango da. Urte biko proiektua izango da eta obrak 2023an zehar egitea aurreikusten da, udalak ohar batean azaldu duenez.

Parkeak hainbat gune izango du: padel pista bat, eskalada gune bat, bide sare bat eta bizikleta bide bat; baita oreka eta kalistenia gune bat, belaunaldi anitzeko gune bat eta egonaldi eta aisialdirako beste gune bat ere. Esleipe-

naren prezioa 1.489.911 eurokoa izan da. Horietatik 275.957 euro Aldundiko kirol azpiegituren programatik jasoko dituzte, eta 100.000 euro Aldundiko Herriak Egiten programatik.

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioagaz araztegi zaharra kentzeko eta ponpaketa-sistema modernoago bategatik ordezkatzeko 2019an harturiko akordioaren ondoren, Mallabiko Udalak 17.374 metro karratuko partzela bat erosi zuen, Zubitegi errekararen ezker aldean, eta bertan egokituko dute aire zabaleko kirolerako eta aisialdirako parkea. Ingurune horretan kirola eta natura uztartu gura dituzte.



Kirol parke berriaren infografia. MALLABIKO UDALA

2023an zehar autoentzako aparkaleku berria egingo dute Mañarian, herriko sarreran dagoen parkean

Udalbatzarrean datorren urterako aurrekontuak onartu dituzte eta aparkaleku berria egitea da inbertsio nagusia

MAÑARIA • J.D.

Mañarian 2023ko aurrekontuak onartu dituzte azken udalbatzarrean. 1.002.751 eurotan parekatu dituzte sarrera-irteerak.

Inbertsiorik handiena aparkaleku berri bat egiteko erabiliko dute. 90.639 euroko diru atala gorde dute horretarako. Durangotik herrirako sarreran egingo dute, Santa Kurtze guruztokiaren parean dagoen parkean, eta 33 autoentzako tokia izango du. Posible bada 2023ko lehenengo seihilekoan hasi gura dituzte lanak, eta urtea joan aurretik amaitu. "Aparkatzeko dagoen arazoari irtenbidea eman gura diogu. Herritarrei egunerokotasuneko martxan laguntzea da helburua", adierazi du Ainara Otxotorena alkateak.

Bestalde, herriko elkarteei eman beharreko laguntza 45.000 eurora handitu dute. Guraso elkarteari udalekuak antolatzeke eman beharreko diru atala ere handitu dute. Aurten herriko erroldaturiko haurrek doako udalekuak izango dituzte. "Mañariko haurrek herriko bertan udako zerbitzua izatea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu", dio Otxotorena.

Kultura sustatzen jarraitzeko "apustua" mantenduko dute. Esaterako, besteak beste, 20.000 euro gorde dituzte kultur asterako, 12.000 urteko kultur ekintzetarako eta 9.000 maiatzeko azokarako.

Aurrekontuak gobernu taldeko (EH Bildu) botoekin onartu dituzte. EAJk kontra bozkatu du. Ezezkoaren arrazoi bat aparkalekua da.

"Herriko berdegune gutxi dago. Gainera, ez dugu uste aparkatzeko arazoa kopontzen duenik. Diru asko da 33 plazarako. Arri Toki inguruan handiago bat egitea proposatu dugu, eta inbertsio guztia aldi berean egitea", dio EAJko Jon Murrugak. Otxotorena alkateak dio

"ez" dutela aukera hori "bartzertzen" etorkizunean, baina hainbat traba dituela: lurraz ez dira udalarenak, plan berezi bat egin beharkeo litzateke eta "ez dio irtenbidea ematen aparkatzeko egunerokotasuneko arazoari, herrigunetik urrun dagoelako".



Herriko sarreran dagoen parkean egingo dute aparkalekua.

Otxandion, Itziar Zabala eskalatzailea izango da rokodromoko inaugurazioan

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko frontoian egin duten rokodromo berria inauguratu dute gaur. Inaugurazio ekitaldia 18:00etan hasiko da, Mainondoko gimnasioan. Bertan, Amagana ikus-entzunezkoa emango dute, eta berbaldi musikatu ere egongo da. Amagana ikus-entzunezkoa Itziar Zabala (Dima, 1994) eskalatzaileari eta berak Baltzola eskalada gunea duen hartu-emanari buruzkoa da. Gero, rokodromo berrira joango dira, eta bertan 2015an Espainiako Eskalada Kopako txapelkun geratu zen Zabalak erakustaldia emango du boulder berrian.

Rokodromo berria egiteko, herritarrek, hainbat eragile eta udala elkarlanean aritu dira.

Athletic Club




Vs



CA Osasuna

Athleticen eta Osasunaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Anbotokideen artean San Mames VIP Areako palkorako sarrera bikoitz bat zozkatuko du Anbotok. Egin zaitez Anbotokide eta zatoz esperientzia zoragarri hau bizitzera.

Zozketan parte hartzeko azken eguna: abenduaren 21a.

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



**anboto
kide**

Elorrion, Montorran, 140 etxe egingo dituzte; horietatik 70, babes ofizialekoak

Udaletik azaldu dutenez, Montorra eremuko plan honegaz Alde Zaharra eta Ganondo parkea zubi biren bitartez lotzea aurreikusten dute, eta mugikortasunean aldaketak egitea

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Montorran 140 etxebizitza egitea onartu zuten azken osoko bilkuran; hau da, proiektua hasieratik onartzea. "Plan honek ilusio handia egiten digu. Oso gune interesgarria da herriaren garapenerako; Elorrio nabarmen hobetuko da", azpimarratu du Idoia Buruaga alkateak. Proiektuak 140 etxebizitza jasotzen ditu eta horietatik 70 babes ofizialekoak izango dira, 40 sozialak eta beste 30 tasatuak. "Etxebizitza tasatuak eta sozialak guztien erdia dira", dio alkateak. Aurreratu duenez plan honek Alde Zaharra eta Ganondo parkea zubi biren bitartez lotuko ditu, eta mugikortasunari dagokionez ere aldaketak egingo dira.



Montorra eremuko argazkia.

9.087.000 euroko aurrekontua Elorrion, aurtengoa baino %3,6

EH Bilduren eta Herriaren Eskubidea/Elkarrekin Podemosen aldeko botoekin onartu zituzten aurrekontuak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriok 9.087.000 euroko aurrekontua izango du 2023an, aurtengoa baino %3,6 handiagoa. Azaroko osoko bilkuran onartu zituzten aurrekontuak, EH Bilduren eta Herriaren Eskubidea/Elkarrekin Podemosen aldeko botoekin. EAJk aurrekontuen aurka bozkatu zuen eta osoko zuzenketa aurkeztu zuen. Hau ez zen onartu.

"Gizarteak dagoeneko atzean utzi ditu pandemiaren eraginez ezarritako murrizketak eta baldintza bereziak, eta egoera hori aurrekontuetan ere islatzen da", azaldu zuen Idoia Buruaga Elorrioko alkateak osoko bilkuran.

Horrez gainera, aurreko urte bietan lez arlo sozialaren aldeko

apustu handia egin dutela jakinarazi zuen: "Gizarte politikek, berdintasun politikek, adinekoei zuzenduriko proiektuek, hezkuntzak, kulturak eta euskarak aurrekontuetan duten pisua azpimarratzekoa da".

EAJk aurrekontuen aurka bozkatu zuen eta osoko zuzenketa aurkeztu zuen; ez zen onartu

Aurrekontuak proiektu txiki eta handiez osaturikoak direla ere esan zuen, "herrian dauden beharrezko erantzuteko modukoak".

Mikel Arruabarrena izango da Elorrioko EAJren alkategaia

ELORRIO • M.Z.

Mikel Arruabarrena izango da Elorrioko EAJren alkategaia. "Gogotsu eta ilusio handiagaz onartzen dut erronka, baina baita apaltasunagaz ere. Zazpi urte daramatzagu oposiziotik gure herrikideen alde eta haien onbeharrez lan egiten. Erantzukizun handia da alkatetza berreskuratzen ahalegintzea, baina, batez ere, elorriarren ilusioa berreskuratzea da gure asmoa. Elorrio biziberritzea dugu helburu", azaldu du Arruabarrenak.



Atxondon hile honetan hasiko dira Jauregi auzoa berrurbanizatzen

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak argi berdea eman dio Jauregi auzoa berrurbanizatzeko obren esleipenari, eta, jakinarazi dutenez, hile honetan bertan aurreikusten dute auzoa berrurbanizatzen hastea, abenduan. Lanek 370.000 euro inguruko aurrekontua dute eta bost hilabeteko epean egitea aurreikusten dute.

"Jarduketa honeguz, urte askoan abandonatuta egon den auzo honen beharrezko erantzun diegu", azaldu du Xabier Azkarate alkateak.



Jauregi auzoa.

2023an kale garbiketa indartu egingo dute Abadiñon, diru partida %88 igota

Kale garbiketarako diru partida 420.000 eurotik 790.000 eurora pasatuko da 2023an

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azaroko azken martitzeneko osoko bilkuran ia 11,5 milioi euroko aurrekontua onartu zuten Abadiñon, EAJko eta Abadiñoko Independententeak taldeko zinegotzien aldeko botoekin. Abadiñoko EH Bilduk aurrekontuen kontra bozkatu zuen.

Datorren urteko aurrekontuetan, garbiketa zerbitzurako partidak iguera nabarmena izango du: 420.000 eurotik 790.000 eurora

igoko da; ikastetxeak garbitzeko partida 85.000 eurotik 155.000 eurora, eta kultur etxeak garbitzeko partida 24.000 eurotik 33.500 eurora.

Proiektuei dagokienez, une honetan egiten dabilzan zenbait lan 2023an amaitzea aurreikusten dutela jakinarazi dute, tartean Trañapadurako zubia eta Astolako igerilekuko estalkia.

EH Bilduk datorren urteko aurrekontuen aurka bozkatu

Une honetan egiten dabilzan zenbait lan 2023an amaitzea aurreikusten du udalak

zuen, eta aurrekontuei 20 emendakin aurkeztu zizkien, 600.000 eurotik gorako moldaketak. Bat bera ere ez zen onartu.

Atxarteko harrien mozioa

Bestalde, EH Bilduk mozio bat aurkeztu zuen osoko bilkuran, Atxarteko harrobitik eraman diren harri blokeen auzia ikeretzeko eskatzeko. Mozioa onartu egin zen, EH Bilduren aldeko botoagaz eta EAJren eta Independententeen abstentzioagaz. "Norbanako batek urriaren 20an grabaturiko bideo batean ikusten da Atxarteko kanteran harri blokeak kargatzen eta garraiatzen ibili zirela. Eta gai honen inguruan hainbat galdera dago, eta hainbat zalantza argitzeko. Esate baterako: nork eman zuen baimena harriak hartzeko? Badago baimenik? Oso arduratuta gaude eta, inolako dokumenturik

ageri ez denez, ikerketa bat egi- tea eskatzen dugu", azaldu zuten oposizioko kideek.

Oposizioko taldeari erantzunez, harrobitik harturiko harriak diputazioak erabili zituela esan zuen alkateak. "Abadiño-ko errepide bateko lur-jausi bat konpontzeko. Baina legeari begira gaude eta txosten juridiko bat eskatu dugu. Hurrengo batzorde- rako izango dugu", aitortu zuen Mikel Garaizabal alkateak.

Javier Crespo Abadiño-ko Independententeen bozeramaileak esan zuen eurek ere alderdi batzuekin zalantzak dituztela gai honen inguruan. "Uste dugu garrantzitsu- tsua dela horiek argitzea", amaitu zuen.

Datozen eguen bietan erabakiko dira Olazar pilota txapelketako finalistak

Hilaren 22ko jardunaldian Zaldua Kirol Elkartearen urteurrena ospatuko dute



Eguen ilunzteetan jokatuko dituzte finalerdiak; finala abenduaren 31n izango da. **JULEN URIBE**

ZALDIBAR • J.D.

Zaldibarko Olazar txapelketa azken txanpan sartu da. Datozen eguen bietan, 21:30ean, binakako finalerdiak jokatuko dituzte, bai gizonetan bai emakumeetan. Emakumeen lau eta erdiko txapelketa orain hasiko da. Lau pilotarik parte hartuko dute eta espezialitateko onenetarikoak dira.

Hilaren 15ean Arrizabalagak eta Garaik neurtuko dituzte indarrak kaiolan. Arrizabalaga lau

eta erdiko Master Cup finalerako sailkatu da. Binaka, orain urte biko Olazar txapelketako irabazleek —Matak eta Iruritik— De la Fuente eta Aldabe izango dituzte kontrario. Kasu honetan ez dago faborito argirik.

Pilota eta ospakizuna

Hilaren 22an, Aldaik eta Salsamendik neurtuko dituzte indarrak lau eta erdiko bigarren finalerdian. Binaka, Igoa-Ugartemendia eta Murua-Eskuza bikoteen

artekoa da finalerdia. Partidu bien artean, Garikoitz Sarriurgarte bertsolari zaldibartarrak hainbat bertso kantatuko du. Izan ere, aurten 50 urte betetzen dira Zaldua Kirol Elkarte sortu zenetik, eta ekitaldia ospakizun horien barruan dago. Pilotalekurako sarrera doakoa izango da.

Gizonen lau eta erdiko finalistak atzo erabaki ziren: Irribarriak eta Zubizarretak jokatu zuten finalerdi bat eta Ariztegik eta Egiurennek bestea.

Berbalapiko, berriztarren ekarpenagaz osaturiko hiztegia Berrizko berbakera jasotzeko

Berbak ez ezik, aditzen formak ere batu dituzte Euskara Sailak bultzaturiko egitasmoan

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Urtebetez, arrankaidxek, katami-xerra, erlaidxek eta beste berba asko batuta Berbalapiko hiztegia osatu dute Berrizen. "Bertako berbakera galtzen dabilela uste dugu, gure aitita-amamek erabiltzen zuten berba asko, eta baserrietako gauza asko ere ez da ezagutzen", azaldu du Maite Guerenabarrena euskara teknikariak. Euskara Sailak sustatu du egitasmoa eta hainbat berriztarrek parte hartu dute bertan. "Gazteen eta adinekoen artean transmisio lana egiteko baliagarria ere badela uste dugu", azaldu du Montse Albizuri berriztarrek; Danel Medina ilobagaz batera parte hartu du egitasmoan. Urtean zehar baturiko berbekin hiztegia osatzen joatea da asmoa; Ekarpinak euskara@berriz.eus helbidera bidali daitezke.



Maite Guerenabarrena, Montse Albizuri eta Danel Medina.

anboto
kide



Anbotokideen txokoa

ABENDUKO ZOZKETAK



Alcampo supermerkatuaren eskutik otzara eder bat.

*Anbotokide guztien artean zozkatuko da.



Laika umeentzako antzerkirako sarrera bikoitz bat. Arriola Antzokian abenduaren 18an.

*Eman izena gure webgunean.



Pinto-pinto txotxongilo ikuskizunerako sarrera bikoitza. Abenduaren 18an San Agustinen.

*Eman izena gure webgunean.



Jai Alai jairako bi sarrera bikoitz. Abenduaren 30ean Gernikako Jai Alai frontoian.

*Eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Hertzainak taldearen kontzerturako bi sarrera bikoitz:
Igone Amesti Bustinzuriaga
Leire Darretxe Urrutxi

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



DURANGALDEA • E.H.

Durangaldeko merkatarien elkar- teek eta udalek agerraldia egin zuten, joan zen barikuan, *Dena bertan!* kanpainari hasiera emateko. Herri- tarrei adierazi zieten beharrezko produktu guztiak eskualdean eskuratu ditzaketela, "inora joan beharrik edo inondik ekarri beharrik barik". Behin eta berriro azpi- marratu zuten denerik daukatela: elikagaiak, jantziak, jostailuak, etxetresnak, liburuak, altzariak, kosmetikoak... Eta hori guzti hori eskura daukatela, bertan dauka- tela. Berdin Zornotzan, Berrizen, Abadiñon, Elorrion, Iurretan zein Durangon. "Durangaldeko denda txikiak merkataritza-sare erraldoia gara. Hementxe daukazu behar dituzun produktu eta zerbitzu guz-

Dendari txikien sare erraldoia, beharrezko produktu eta zerbitzuak bertan eskaintzeko

Durangaldeko merkatariek eta udalek agerraldi batez hasi dute 'Dena bertan!' kanpaina

tiak. Dena bertan, gertutasunak bakarrik eskaini ahal dizkizun erraztasunagaz eta konfiantzagaz", adierazi zuten agerraldian. Hori dela eta, datozen asteetan arrosa koloreko hainbat maniki ipiniko dute erakuslehoetan, *Dena bertan!* dioten goiburuekin eta mezuekin.

Bestalde, azaro amaieran euren erakuslehoetan egindako pintaketek arreta pizteko asmoa zute- la azaldu zuten, erosleei "tokiko merkataritzaren inguruko kezka" helarazteko.



Iurretan eman zuten prentsaurrekoko argazkia.

Durangaldea asteen

Sareren manifestazioa Durangon, hirugarren gradukoei aplikatzen zaien "blokeoa" salatzeko

DURANGO Sarek euskal presoei aplikatzen zaien espetxe politi- karen balantzea egin du. Elkartearen esanetan, 110 euskal preso "hirugarren gradua eskatzeko moduan daude", kondenaren erdia baino gehiago beteta dutelako. Baina eskubide hori "oztopatzen" ibiltzea leporatu diote fiskaltzari. Hori dela eta, Sarek manifesta- zioa egingo du Durangon, abenduaren 10ean, *Etxerako bidean ozto- porik ez! Gradu erregrisorik ez!* lemapean. Mobilizazioak 17:30ean irtengo du, Landakotik.

Bost hamarkada eta gero, behera bota dute Gaztetxe izandako eraikina Durangon

DURANGO Montevideo eta Uribarri kaleen bidegurutzean egon- dako eraikina historiara pasa da. Eraikinaren jabeek, Durangoko Udalagaz halantxik adostuta, eraikuntza bota dute azken asteo- tan. Udalak ingurua egokitzeko lanak hartuko ditu beregain.



Iritzia

Bizkaiko egoitzak negozio pribatu

Zahartze demografikoa gizarte gisa esku artean daukagun desafio gogorra izan liteke, eta zalantza barik arreta-eredua eraldatzea eta konpromiso etiko eta moralez jokatzeko eskatzen du horrek.

Gurea izan zitekeen hemengo eredua. Pertsona zentratuta- ko osasun arretarantz, Bizkaiko Foru Aldundiko egoitzetan bi- zikidetzak unitateak martxan jarri eta erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitutako kalitatezko egoitza-arreta bermatuta. Gurea izan zitekeen, eredu aldaketarako bidean negozioa egite- ko aukera ikusi izan ez bazenute.

Zehazki gurean, Elorrioko egoitzan, 18 egoitza-plaza pu- bliko desagertuko dira, baita gaueko erizaintza zerbitzua eta bina zerbitzari eta atezain-plaza ere. Eta kontratazio pribatua atezaintzako gaueko txandan. Aldaketok lan karga handituko diete erizain-laguntzaileei; erabiltzaile eta familien errefe- rente nagusi izango dira, baina, aldiz, gaueko txanda finakoak aplikatuko zaizkie, gauez erreferenterik beharko ez balute be- zala. Ez dakizue zuek zelako babes eta esku ezagunak bilatzen dituzten gauean. Benetan uste duzue bidezkoa dela hori?

Eta hau ez da kasualitatea, hartu duzuen bidearen adibide bat gehiago da. Sare publikoa kudeatzen ari zarete harekin negozioa egin nahian, tratu eskuzabala emanaz sektore pribatuari. Zerbitzu publikoak indartzeko jasotako aurrekontuak lankidetzak publiko-pribatura bideratzen ari zarete korporazio handien mesedetan, eta gainera, osasunaren izenean.

Oraindik garaiz gabiltza. Gure adinekoek ez dute halako zigorrik merezi!

Esther Lopez Angulo (Elorrioko Egoitzako Langileak).

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Politikan

Jesica Ruiz Perez
PSE-EE



Nagusiak

Durangon, 2022ko otsaileko datuen arabera, 65 urtetik go- rako ia 6.000 pertsona daude. Zifra horrek urtetik urtera gora egiteko joera du. Adine- koak talde heterogeneoak dira, erabateko bizitasunez ahal- dundutakoetatik hasi eta ba- kardadean bizi direnetaraino. Bakarrik bizi diren adineko pertsonen kopuruak gora egi- ten du urtez urte. Egoera ho- rrek kolektibo kaltebera bihur ditzake. Dibertsifikazio horrek premia eta eskari desberdinak dakartza. Edonola ere, pande- miak oso gogor kolpatu dituen taldeak dira, eta oraindik sus- pertzen ari dira.

Hainbat programa ezarri dira Durangon adinekoentzat, hala nola: podologia eta kafete- gi zerbitzua, suteak detektatze- ko programa (2010ean), 'Lagun- kide' adineko pertsonak lagun- tzeko boluntariotza programa (2013an), tailer psikosozialak hainbat auzotan: San Fauston eta Madalanan (2016an) eta Aramotzen (2018an), janto- ki-zerbitzua Adinekoen Egoi- tzan (2016an) eta etxeko eta janari-zerbitzua (2019an).

Durango PSEn argi dau- kagu, alde batetik, bizitasun nekaezina duten adinekoei ahalduz eta antolatzen lagundu behar diegula, eta, bestetik, kolektiborik haus- korrenarekin babes neurriak ezartzen jarraitu behar dugula bakardadea detektatzeko. Hauek dira legegintzaldi hone- tan zehar faltan izan ditugun ekintza zehatzak. Gainera, nagusiek urtez urte instalazio duinak eskatzen dizkigute, esa- te baterako, kokapen eta irisga- rritasun ona duen adinekoen zentroa, eta guk borrokan ja- rraituko dugu hori gauzatu ahal izateko.

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Liburu aurkezpena

Pozaren erdia
Harkaitz Cano

Abenduak 13, martitzena



19:00-tan, Durangoko Hitz liburu-dendan. *Doan

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2023


Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Abadiñoako estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda Hitz Liburudenda
ELORRIO	Tximeleta gozoki denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	Herriko taberna Talka
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda



Okm:

batzen gaituen distantzia



> anboto
kide

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAHIA HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!


anboto
kide

BURUARI KLIK!



ESAERA ZAHARRA

Bete laukiak dagokion letragaz, behean daukazu alfabetoari jarraituta.







TOPATU ITZAZU

Alboko irudian bederatzi objektu
hauek topatzeko gai zara?




ZEIN DA?

Zein da irudia osatzeko erabili den kolore paleta?





PUNTUAK LOTU

Lotu zenbakiak marra bakar batez eta irudi osoa lortuko duzu.



SEKUENTZIA JARRAITU

Puntu arrosatik hasita, jarraitu beheko sekuentziari eta irudia lortuko duzu.



DOMINOA

Marraztu dagokion irudia lauki zurietan.




BATUKETA

Batu beheko irudi biak eta topatu zein berba dagoen ezktutatuta.



1. TI A 2. S A 3. RIU RE A
 4. TIRA NOSAJPIO F EY





IRUDIENEA

Abenduak 9, barikua

11:00 - 12:00 Artxipielagoa II Podcasta. Euskadi Irratia

12:00 - 12:30 Helmutz, bi hiri bi organo. Aitor Alberdi Garralda

12:30 - 13:30 Geruzak. Jakin Fundazioa eta Elkar argitaletxea

13:30 - 15:00 Zertako! Talde lana

15:00 - 17:30 Space Jam. Zineuskadi

17:30 - 18:30 Loreak Belaunetan, kulturaren zazpi ahots gazte. Lanartean - Amagoia Gurrutxaga Uranga

18:30 - 19:30 Mari, ixilik nahi gaituztenean. Talde lana

19:30 - 20:30 Itxaso telesaila. EITB

Abenduak 10, zapatua

11:00 - 12:00 Bi arnas. Jon Mikel Hernández

12:30 - 14:30 Irati. Paul Urkijo

14:30 - 15:00 Tears of Bukhara. Markel Goikoetxea Markaida

15:00 - 16:30 Trash. Familientzat zinema euskaraz

16:30 - 18:30 Karpeta Urdinak. Ander Iriarte

18:30 - 19:00 Noizko basoa. Mikele Landa Eiguren

19:00 - 20:00 Pelikula baten bila. Gariza Films

20:00 - 21:00 Latsarriak. Estibaliz Maguregi

Abenduak 11, domeka

11:00 - 12:30 Azken dantza maisua. Mikel Alvarez Sarriegi

12:30 - 13:30 Intsumisioa Bergaran, desobedientziarako bide bat. Aitor Alberdi Garralda

13:30 - 14:30 Itsasoak pizten gaitu. Beñat Gereka

16:00 - 17:30 Gesto. Xuban Intxausti

17:30 - 18:30 Ilunetik Argira. Markel Onaindia Txabarri

KABIA

Abenduak 9, barikua

10:30 - 11:00 Barraka prentsaurrekoa. Ibai Aizpurua

11:00 - 14:00 Gamer Gela. Jolasteko gune irekia

11:30 - 12:00 Euskal bideojoko sortzaileak ezagutzen... Game Erauntsia

16:00 - 19:30 Gamer Gela. Jolasteko gune irekia

17:00 - 18:00 Rola euskaraz: zer? Nola? Zergatik? Rolariak

SZENATOKIA

Abenduak 9, barikua

12:30 - 12:55 Amaya. Amaia Lizarralde eta Olatz Beobide**13:00 - 13:25 Nire zigilua.** Alain Lersundi**13:30 - 13:55 Amaya.** Amaia Lizarralde eta Olatz Beobide**17:30 - 17:55 Amaya.** Amaia Lizarralde eta Olatz Beobide**18:00 - 18:25 Nire zigilua.** Alain Lersundi**18:30 - 18:55 Kilimaterioa.** Kaitin Allende, Oihane Perea, Iratxe Ibarra eta Irati Anda**19:00 - 19:25 Nire zigilua.** Alain Lersundi**19:30 - 19:55 Kilimaterioa.** Kaitin Allende, Oihane Perea, Iratxe Ibarra eta Irati Anda

Abenduak 10, zapatua

12:30 - 12:55 Denboraren kora-piloak. Tartean Teatroa**13:00 - 13:45 Lasterketa bat egin txaloka ero moduan.** Libe Mendizabal eta Amaia Salazar**13:30 - 13:55 Barrexerka****17:30 - 17:55** Denboraren kora-piloak. Tartean Teatroa**18:00 - 18:45 Lasterketa bat egin txaloka ero moduan.** Libe Mendizabal eta Amaia Salazar**18:30 - 18:55 Denboraren kora-piloak.** Tartean Teatroa**19:00 - 19:55 Barrexerka**

Abenduak 11, domeka

12:30 - 12:50 Flamenkito. Badut Teatroa**13:00 - 13:10 Hau ere banaiz.** Garazi Abralde Azkorbebeitia**13:30 - 13:55 Elurzuriren hiru heriotzak.** Khontaira**17:00 - 17:20 Flamenkito.** Badut Teatroa**17:30 - 17:40 Hau ere banaiz.** Garazi Abralde Azkorbebeitia**18:00 - 18:25 Elurzuriren hiru heriotzak.** Khontaira

DURANGO +

Abenduak 9, barikua

10:30 - 20:00 Gaurko euskal eskultura. Eskuhaldunak Eskultoreen Elkarte**11:00 - 20:00 (H) AMAR. Soinu instalazioa.** Durangoko Museoan**11:00 - 20:00 Ramon de Zubiaurre.** Sorterriaren kolorea (1882 - 1969)**11:00 - 21:00 VI. Eixu Azoka.** Artisau eta sortzaileak**18:00 - 19:00 Pol . Ien Edicions: Itzulpena elkartasuna da.** Euskal Herriko literatura, poesia, komikia eta saiakera, katalanez

Abenduak 10, zapatua

10:30 - 20:00 Gaurko euskal eskultura. Eskuhaldunak Eskultoreen Elkarte**11:00 - 20:00 (H) AMAR. Soinu instalazioa.** Durangoko Museoan**11:00 - 20:00 Ramon de Zubiaurre.** Sorterriaren kolorea (1882 - 1969)**12:00 - 13:00 Sastraka. Pello Lizarralde, Jose Ignacio Agorreta, Imanol Ubeda eta Imanol Rayo****14:30 - 21:00 VI. Eixu Azoka.** Artisau eta sortzaileak**18:00 - 19:00 Iñaki Segurola etorriko ez litzatekeen ekitaldia.** Alberdania**19:30 - 21:00 Txistua XXI. mendean.** Silboberri Txistu Elkarte

Abenduak 11, domeka

10:30 - 20:00 Gaurko euskal eskultura. Eskuhaldunak Eskultoreen Elkarte**11:00 - 20:00 (H) AMAR. Soinu instalazioa.** Durangoko Museoan**11:00 - 20:00 Ramon de Zubiaurre.** Sorterriaren kolorea (1882 - 1969)**11:00 - 21:00 VI. Eixu Azoka.** Artisau eta sortzaileak

SAGUGANBARA

Abenduak 9, barikua

11:00 - 11:30 Txalopinak, zaharberitutako kanta finak. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena**12:00 - 12:30 Olentzero-enborra.** Txontxe Etxebarria eta Malen Amenabar**13:00 - 13:30 Paperezkoak, altxor bat hilero.** Imanol Agirre, Olatz Azpiazu eta Ibai Arrillaga**16:00 - 16:30 Mari, Meri eta Mori sorgin ausartak.** Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena**17:00 - 17:30 Amaiur.** Irati Azkue, Amaia Elizagoien eta Irati Celestino

Abenduak 10, zapatua

11:00 - 11:30 Kiratsa. Iban Illarramendi eta Eider Adeletx**12:00 - 12:30 Patata eta tomatea, tripontzi pare! eta Tipula eta erremolatxa, hau pagotxa!** Irati Garmendia eta Ane Arzelus**13:00 - 13:30 MAEIOUR Euskaraz marrazten dugu!** Eider Eibar eta Josu Cobelo**16:00 - 16:30 Kamishibaizalea.** Iñaki Martiarena 'Mattin'**17:00 - 17:30 Naian.** Nerea Loiola eta Jon Aranguren**18:00 - 18:30 Olentzero ipuinen herrialdean.** Vivim del Cuentu taldea

Abenduak 11, domeka

11:00 - 11:30 Txikikondairak. Xandra Bilbao eta María Santórum (Ed.)**12:00 - 12:45 Ene Kantak dantzan****16:00 - 16:30 MARE, ilargiari poemak.** 1545 argitaletxea: Eneko eta Xabi Salaberria**16:45 - 17:30 Itsaso Bizia.** MATER Ontzi Museo Ekoaktiboa**18:00 - 19:00 Familia jolasean.** Olgeta

TALAI

Abenduak 10, zapatua

10:30 - 11:00 Taroka. Errima joko bertsoterikoa

11:00 - 11:30 Xabier Leteren lirika osoa. Lurdes Otaegi eta Alex Gurrutxaga

11:30 - 12:00 Durangaldea oinez ezagutzeko bide bat. Alpino Tabira Mendi Taldea

12:00 - 12:30 Munduari bira eman zion ontzia. Joseba Sarrionandia (Pamiela)

13:00 - 14:00 Euskarazko literaturaren nazioartekotzea. Euskadi Literatura saridunak

14:30 - 15:00 Ni ez naiz Mikel Laboa. Unai Iturriaga, Harkaitz Cano eta Joseba Larretxea (Elkar)

15:00 - 15:30 25 urtez Euskal Nortasunaren Alde eta Eguneroko Euskalduntasunaren Gara(i)pena

15:30 - 16:00 Mendebaldeko euskara zaharra. Ezaugarriak, kronologia eta geografia

16:00 - 16:30 Las Siete Llaves y Zazpi Giltzak. Marisol Andrade

16:30 - 17:00 Hormetan: kartelak Bizkaian. Alex Oviedo eta Kike Infame (BFA)

17:00 - 17:30 Euskal Pedagogia Lokatzetan. Joxe Mari Azurmendi Atik Zra (Hik Hasi)

17:30 - 18:00 Euskal Herriko historia ilustratua IV. Joseba Asiron eta Martin Alzueta "Martintxo" (Txalaparta)

18:00 - 18:30 Ilargiaren Egutegia 2023. Jakoba Errekondo (Argia)

19:00 - 20:00 Idazleak ikastetxeetan. Nerea Loiola, Asier Serrano eta Patxi Zubizarreta

Abenduak 11, domeka

10:30 - 11:00 Durangoko Azoka geografo japoniar baten ikuspuntutik. Ishii Hisao

11:00 - 11:30 Ilargia eta landareak. Jakoba Errekondo (Argia)

11:30 - 12:00 Isildutako eskuak. Jon Abril (Elkar)

12:00 - 12:30 Lege zaharrean: lanbideak galzorian. Jesus Mari Arruabarrena (BFA)

13:00 - 14:00 Kultura bai, baina ez. Lanartea

14:30 - 15:00 Txalaparta: zentzia eta historia. Argibel Euba eta Elisabete Alberdi (EHU/UPV)

15:00 - 15:30 Amapatxa. Amets bat, bide bat. Ion Braka

15:30 - 16:00 Hazi Hezi aldizkaria. Familientzako haziera eta heziketa tribua (Hik Hasi)

16:00 - 16:30 Gorbeiaiko istorioen bila: gure mendi magikoko hamalau igoera. Javier Sanchez- Baskoetxea

16:30 - 17:00 Emakume digitalak euskal komunitate digitalean. Hamaika Telebista.

17:00 - 17:30 Ekaiak badu garrantzia. Jose Ramon Etxebarria (UEU)

17:30 - 18:00 Sendabelar baratzea. Garbiñe Larrea (Argia)

18:00 - 18:30 Fotokazetaritza. Argazkigintzaren teknika eta kazetaritzaren egitekoa. Maria Gorosarri (UEU)

18:30 - 19:00 Harizko Zubiak. Jon Sarasua eta Jose Angel Irigaray (Pamiela)

19:00 - 19:30 EH! Petrel. Julio Villar eta Ibon Gaztañazpi

19:30 - 20:00 Bukatu DA! Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai

AHOTSENEA

Abenduak 9

Plateruena
(Ahotsenea Zuzenekoak)

11:00 - 11:30 Lumi. Bezperaren dirdira

12:10 - 12:40 Ilargi. Beldurrekin dantzan

13:20 - 13:50 Agur

14:30 - 15:00 Mirua

15:40 - 16:10 Xsakara. Lurrikarak

16:50 - 17:20 Mugan. Bizirik ez bagaude

18:00 - 18:30 Kokein. Atomika

19:10 - 19:40 Keia. Erregaia

20:20 - 20:50 Mice. Lautada

21:30 - 22:00 Ezpalak. Hortz aina hots

Ahotsenea Literatura –
Musika Eskola (Ahotsenea Solasaldiak)

11:00 - 11:30 Pier Paolo Pasolini. 'Kale gorriko umeak'
Itzultzailea: Fernando Rey. Igela.

11:30 - 12:00 Marina Garcés. 'Filosofia amaitu gabea'
Itzultzailea; Olatz Mitxelena. Jakin.

12:00 - 12:30 Aritz Gorrotxategi. 'Uda betea'
Elkar

12:30 - 13:00 Mikel Alvarez. 'Euskalia'
Elkar

13:00 - 13:30 Ganbila bilduma. 'Album' eta 'Esperoan'
EHAZE, Susa

13:30 - 14:00 Victor Catalá. 'Atsoa'
Hautaketa: Blanca Llum Vidal

14:00 - 14:30 Maite Lopez Las Heras. 'Amatu'
Alberdania

16:00 - 16:30 Irene Sola. 'Dikeak'
Itzultzailea: Joxan Elozegi. Alberdania

16:30 - 17:00 Aiora Zabala. 'Natura gure esku'
Alberdania

17:00 - 17:30 Nerea Ibarzabal. 'Bar Gloria'
Susa

17:30 - 18:00 Andoni Urzelai. 'Ametsen trafikatzaila'
Elkar

18:00 - 18:30 Iñaki Cid eta Karmele Mitxelena. 'Behin batean Loiolan' eta 'Haragizko mamuak'
Donostia Hiria Saria

18:30 - 19:00 Leire Milikua. 'Lur gainean, itzal azpian'
Susa

19:00 - 19:30 Abdela Taia. 'Zure argitan bititza'
Itzultzailea: Patxi Zubizarreta. Alberdania.

19:30 - 20:00 Marijo Ezeizabarrena eta Junkal Gutierrez. 'Hotsetik hitzera'
Nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek? Erein.

Abenduak 10

Plateruena
(Ahotsenea Zuzenekoak)

11:00 - 11:30 Pasadena.
Izpia

12:10 - 12:40 Assata.
Oasia

AHOTSENEA

13:20 - 13:50 Asla.

Nire eguzkia

14:30 - 15:00 Kyxo. Lino**15:40 - 16:10 Peru Galbete.**

Beiratu

16:50 - 17:20 Esti Markez.

Hitzekin jolasean

18:00 - 18:30 Sega Sound

Killers. Dolu

19:10 - 19:40 Dukkha.

Zain

20:20 - 20:50 Bengo.

Bizirik

21:30 - 22:00 Ødei.

Terapia

Musika Eskola

(Ahotsenea Solasaldiak)

11:00 - 11:30 Anjel Lertxundi.

'Desertuan behatxuloa'

Alberdania

**11:30 - 12:00 Jon Eyherabide
eta Xabier Sagasta.**

'Hamalau' Gatzuzain

12:00 - 12:30 Aingeru Epaltza.

Erretzaile damutuen

konpainia. Elkar

12:30 - 13:00 Iban Zaldua.

'Ipuina engainua da' Elkar

13:00 - 13:30 R.W. Connell.

'Maskulinitateak' Itzultzailea:

Ane Garcia. Jakin - Elkar.

13:30 - 14:00 Nerea Loiola.

'7G udalekuak' Erein

14:00 - 14:30 Luisa Carnés.

'Hamairu ipuin' Itzultzailea:

Danele Sarriugarte. Erein.

16:00 - 16:30 Aritz Galarraga.

'Humanitatearen une

gorenak' Alberdania

16:30 - 17:00 Adur Larrea.

'Lurbinttoko ohoinak' EKE-

Elkar soken beka.

17:00 - 17:30 Iñigo

Antsorregi. 'Nire minaren

etxean' Elkar

17:30 - 18:00 Anari Alberdi

Santesteban. 'Gari eta

goroldizko' Susa

18:00 - 18:00 Jose Luis

Otamendi. 'Landura' Susa

18:30 - 19:00 Jon Arretxe.

'Lyrica garaia' Erein

19:00 - 19:30 Andoni

Agirrezabala Izagirre. 'Etxe

berdea' Erein

19:30 - 20:00 Miren Azkarate.

'Ikusezinak. Erbesteratuen

haurrak' Baigorri argitaletxea

Abenduak 11

Plateruena

(Ahotsenea Zuzenekoak)

11:00 - 11:30 Arima Soul.

Beltz kresaltsua

12:10 - 12:40 Fufu. Labanak**13:20 - 13:50 Orbel.** Hegan**14:30 - 15:00 Txost!.** Euri-ura**15:40 - 16:10 Watson.** Bobi**16:50 - 17:20 Irtera****18:00 - 18:30 Merina Gris.**

Zerua orain

19:10 - 19:40 Janus Lester.

Ez gaitzala loak harrapatu

20:20 - 20:50 Burutik.

Hamabost segundu

21:30 - 22:00 Mairu

Musika Eskola

(Ahotsenea Solasaldiak)

**11:00 - 11:30 Xalbat Itzaina &
Paxkal Bourgoin.**

'Muga guztien gainetik' Ikas

11:30 - 12:00 Raul Alfaro.

'Bixente' Zortziko

12:00 - 12:30 Txomin Heguy.

'Lur ilaunduaren loreak'

Maiatz

**12:30 - 13:00 Munduko poesia
kaierak. Anna Akhmatova.**

Itzultzailea: Josu Landa / F.

Garcia Lorca. Itzultzailea: Juan

Luis Zabala. Susa.

13:00 - 13:30 Angel Erro.

"Poema liburu bat

-irakurtzeko jarraibideak"

Erein

13:30 - 14:00 Txakur gorria.

'Denboraz. Galde-erantzunen

bilduma' Txakur gorria

**14:00 - 14:30 'Urrun da zeru
urdina. Ataramiñe 2002-
2022'.**

Bildumagilea: Jokin Urain

**16:00 - 16:30 Galo Martinez
de la Pera. 'Emearen bidea
supergizakiaren aroan'**

Alberdania

**16:30 - 17:00 Josu Jimenez
Maia. 'Hitzen hasperenak'**

Maiatz

**17:00 - 17:30 HATSaren poesia
bilduma****17:30 - 18:00 Kepa Altonaga.
'Axularren gerizpean'** Pamiela**18:00 - 18:30 Izaskun
Etxeberria Zufiaurre. 'Esaten
ez den guztian'** Pamiela**18:30 - 19:00 Jose Enrike
Urrutia Capeau. 'Francisco de
Garay-en urrea'** Pamiela**19:00 - 19:30 Nerea Arrien.
'Zoonimia'** Xabier Lete Poesia
Sariaclínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hasia espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.

{ Muruetorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.comArrazoien
Bego Alabazan
(Bilbao)
Helduentzako ipuin kontaketa, gaztelaraz.
bilaAbenduak 16
19:00etanIurreta
Elezateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA



'Rey Lear'

ANTZERKIA DURANGALDEA :: Abenduak 9 eta 10

Atalayak Lear erregearen istorioa taularatuko du Elorrion eta Zornotzan

Herri ipuin batean oinarrituriko *Rey Lear* obra taularatuko dute, gaur, 20:00etan, Arriola antzokian. XII. mendetik Ingalaterraren antzinako historiari gehituriko ipuina da nonbait. Kronikak diotenez, Lear zaharrak bere hiru alabek zenbateraino maite zuten jakin gura izan zuen, gehien maite zuena bere ondorengo izendatzeko asmoz. Bik lausengatu egin zuten eta hirugarrenak bere aita zelako maite zuela, horregaitik baino ez. Hori gutxi irudituta, zigortu egin zuen. Denborak eta

gertaerek frogatuko zuten, ostera, huraxe zela tronurako duin bakarra.

Shakespearek trama luzatu eta aldatu egin zuen, ikuspegi pertsonala emanaz: Lear-en istorioaz gainera Gloucester-ena eta bere semeena ere islatu zuen. Emaizta, muturreko atsekabe, zoramen eta suntsipenezko esperientzia da, erreparorik barik eta modu gordinean adierazita. Atalaya Teatrok bihar ere aurkeztuko du obra, Zornotza Aretoan, 20:00etan.

Abenduaren 9an

ELORRIO buzkantz jaia

Organo kontzertua: Juan de la Rubia, 20:00etan, Sortzez Garbiaren basilikan.

Abenduaren 10ean

ABADIÑO idi probak

2022ko Bizkaiko Idi Proba Txapelketa, 21:00etan, probalekuan.

ELORRIO buzkantz jaia

Buzkantz-pintxo bira, egun osoan zehar, atxikitutako tabernetan.

Abenduaren 11n

ABADIÑO idi probak

2022ko Bizkaiko Idi Proba Txapelketa, 18:00etan, probalekuan.

ELORRIO buzkantz jaia

Odoloste txapelketa. Tiketa salgai (lau pintxo eta ardoa/ura), 10:00etatik 13:00etara, bost euroren truke, Turismo Bulegoan. **Dastatzea herriko lau elkarteetan**, 12:00etatik 14:30era. **Botoa entregatzeko**, 14:45ak arte, Turismo Bulegoan.

Abenduaren 11ra bitartean

DURANGO Azoka

Artisau eta sortzaileen azoka, Andra Mariko elizpean. Gaur eta domekan, 11:00etatik 21:00etara. Zapatuan, 14:30etik 21:00etara. Eixu elkarteak antolatuta.

Abenduaren 13an

ELORRIO buzkantz jaia

Odoloste txapelketaren sari banaketa, 13:30ean, Iturri kultur etxean.

Abenduaren 14an

BERRIZ berbaldia

'Doluaren prozesua eta doluaren mitoak' (Hizlaria: Karmen Amezua Urzelai), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean. Hitz egin dezagun heriotzaz' hitzaldi zikloaren barruan

Abenduaren 15ean

ABADIÑO berbaldia

'Iruña-Veleia-Bagaudak. Euskalduntze goiztiarra. Irulegiko eskua', 19:00etan, Abadiñoko Gaztetxean. Iruña Veleia Martxanek antolatuta.

BERRIZ berbaldia

'Berrizko industrializazioa' bideo aurkezpena, 18:30ean, Berrizko Kultur Etxean. Euskaraldiaren haritik antolaturiko ekitaldia.

ZALDIBAR jolasak

Irakur eta jolas gunea, 17:00etan, udal liburutegian. Hiru eta bost urteko umei eta haien gurasoei zuzenduta.

Abenduaren 16an

ABADIÑO antzerkia

'Tabernaria' (Tartean Teatro konpainia), 19:00etan, Isiotu elkartearen lokal berrian.

BERRIZ antzerkia

'Laika' (Xirriqueteula konpainia), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO berbaldia

'Kozinatzeak egin gintuen gizaki' (Hizlaria: Juan Ignacio Pérez Iglesia EHUKo biologoa), 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

ELORRIO musika

Silitia + Ez Ez Ez, 22:30ean, Ateneoan.

Abenduaren 18ra bitartean

DURANGO lehiaketa

Gazteen lehiaketa artistikoa, Ezkurdi erakustazokan. Durangaldeko Artista Elkarteak antolatuta.

Abenduaren 23ra bitartean

BERRIZ erakusketa

'Bakardade ikusezina' erakusketa: Ruben Orozco Loza eskultore mexikarraren Mercedesen eskultura, Berrizko Kultur Etxean.

Abenduaren 31ra bitartean

ELORRIO erakusketa

'Sei begirada. Kezkaz, misterioz bitzitako uneak', Iturri kultur etxean. Elorrioko Argazki Taldeak antolaturiko erakusketak Begoña Colomoren, Patxi Granadoren, Maria Otxandianoren, Karlos Erizen eta Josu Urizarbarrenaren argazkiak biltzen ditu.

Urtarrilaren 9ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa

'Euskal kulturaren nazioarteko atea', Bilboko Euskal Museoa antolaturiko erakusketa ibiltaria.

Otsailaren 2ra bitartean

DURANGO erakusketa

'1882/1969 Ramon de Zubiaurre. Sorterriaren kolorea' erakusketa, Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

Reyes contra Santa
barikua 9: 17:00
domeka 11: 17:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Simone

barikua 9: 20:00
zapateria 10: 19:00/21:30
domeka 11: 18:30/20:00
astelehena 12: 19:00
martitena 13: 19:00
eguztana 14: 19:00

• Noche de paz

barikua 9: 17:30
zapateria 10: 21:30
domeka 11: 20:30
astelehena 12: 20:15
martitena 13: 20:15

• A todo tren 2

barikua 9: 17:30
zapateria 10: 17:00
domeka 11: 16:30
astelehena 12: 18:00
martitena 13: 18:00
eguztana 14: 19:00

• Kepa Junkera: Berpiztu

barikua 9: 20:00
zapateria 10: 19:15/21:30
domeka 11: 18:30
astelehena 12: 18:00 / 20:15
martitena 13: 18:00 / 20:15

• Rabbit Academy: El gran robo de los huevos de pascua

zapateria 10: 17:00
domeka 11: 16:30

• Otello

eguztana 14: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• El cuarto pasajero

zapateria 10: 20:00
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:00

• Parque salvaje

domeka 11: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Vasil

barikua 9: 20:00
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:15

• La gran aventura suiza

domeka 11: 17:00

• Un Monde

martitena 13: 20:15

Kulturak eta giro onak eztanda egin dute Landako Gunean, eta Durangoko Azokak ohiko dimentsioa berreskuratu du

Durangoko Azokaren 57. edizioa domekara bitartean egongo da zabalik; abenduaren 7an, Ikasle Goizean, Euskal Herri osoko milaka gazte batu ziren



248 stand jarri dituzte Landako Gunean.

DURANGOKO AZOKA • A.M.

Eztanda egin du berriro ere. Pandemiaren ondoren, Durangoko Azoka ohiko dimentsiora bueltatzeko helburua eta desioa zituen Gerediaga elkarteak, eta oraingoz behintzat lortzen dabilela ematen du. Durangoko Azokaren 57. edizioak abenduaren 7an zabaldu zituen ateak, eguaztenez, eta domekara bitartean Durangok euskal kultur gintzaren topagunea izaten jarraituko du. Eguaztenez milaka ikasle bete zuten Landako Gunea, eta lehenago hain ezagunak ziren irudiak berriro zituzten: ilarak artistarik ezagunen erakusmahaietan argazkiak ateratzeko edo diskoak

sinatzeko. "Gero partaideekin berba egin beharko da, ze kontu bat da zenbat jende dabilen hemendik, eta beste bat gunerik gune aurkezpenetan. Amaieran egingo dugu balorazioa, baina oraingoz behintzat Azoka jendetsua izaten ari da, eta giro onekoa", azaldu du Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkarte kudeatzaileak.

Zenbakiei dagokien ere, ohiko itxura berreskuratu du Durangoko Azokak: Landako Gunean 248 erakusmahai daude, eta 930 nobedade bertan. Horiatariko 689 liburuak dira, 141 musika produktuak eta 46 aldizkariak; bestelako 54 lan ere badaude.

Durangaldeko sortzaileak

Durangaldeko sortzaileek ere erakusleho ona dute Durangoko Azoka urteko uzta erakusteko. "Sorpresa handia izan da, ezagun asko gaude hemen urte osoan zehar egindako lanak erakusten, eta pozgarria da ikustea hainbeste jende gaudela hainbeste gauza desberdin erakusten", azaldu du Saroa Bikandi sortzaileak; Bikandik *Poetsikorako poemak* kaleratu du aurtan, Amaia Egidazu ilustratzaileagaz batera. Insömiako Amaiur Azkaratek jendearengandik hurbil egoteko aukera azpimarratu du: "Publiko gehiago geureganatzeko aukera ona da hau".

Bosgarren sormen beka

Sortzaileei plaza eta oholtza eskaintzeaz gainera, Gerediaga elkarteak, Durangoko Udalagaz lankidetzan, Sormen Beka sortu zuen sorkuntza prozesua bultzatzeko asmoagaz. Bosgarren Sormen Beka Jon Ander Urresti aktore bermeotarrak irabazi du, *Eucalyptus* izeneko proiektuagaz; sorkuntza lanak dantza eta antzerkia uztartuko ditu eta, Urrestiren esanetan, eukalipto aitzakia hartuta gure lurren eta bizitzaren kudeaketari buruz gogoeta egitea du helburu. "Periferiako gai eta zalantzak plazaratu gura ditut, euren garrantzi politikoa urgentziaz hausnartzeko asmoz, betiere

hurbilketa garaikide batez", azaldu du Urrestik. Proiektuak lehenengo kolpean emandako ezustea nabarmendu du aurtengo epaimahaiak. Oier Guillan aktoreak, Leire Vargas idazleak, Jon Maya dantzariak, Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko zuzendariak eta Aurelie Pousset Hendaiaiko kultur programatzaileak osatu dute epaimahaia. "Eukaliptoaren zabalkundearen metaforagaz, egileak gogoeta berean harilkatu ditu monokultiboa, faxismoa eta gaur egun gure jendartea kolpatzen duten kezka sozialak eta erronkak. Planteamenduak gudan

Jon Ander Urresti aktore bermeotarrak irabazi du bosgarren Sormen Beka

sortu duen mugimendu hori publikoarengan ere sortu dezakeelakoan gaude. Funtsean gaiaren originaltasunak arrastoa utzi digu; baita eukaliptoari emandako balio metaforiko aberatsak eta bertatik abiatuta gaurkotasanari loturiko hainbat gai jorrazteko testuinguru berezia sortzeko gaitasunak ere", azaldu dute aurkezpenean. Beka honen bitartez, 15.000 euroko laguntza ematen zaio proiektu irabazleari, sorkuntza fase osorako. Aurtengoa bosgarren edizioa da eta urtero kultur diziplina bateko proiektuak garatzeko deialdia egingo dute. Lehenengo urtean, *Atopia* euskarazko rol jokoak garatzeko eman zuten beka; bigarrenean, Kai Nakai reggaeton abeslariari eman zioten; hirugarrenean, *Bañolet* ikus-entzunezko web serieak irabazi zuen. Eta, laugarrenean, Ibai Aizpuruak jaso zuen beka, *Barraka* euskarazko abentura bideojokoa garatzeko. Aizpuruak aurtengo azokan aurkeztu du emaitza.

Estetika gida

anboto

NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



MONTEVIDEO
110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. 2 kotxerentzako garaje itxia. Eguzkitsua.
275.000€ C.E.E=F



DURANGO
110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. 2 kotxerentzako garaje itxia. Eguzkitsua.
130.00 € C.E.E.= G



SANTA SUSANA
Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 2 logela, komuna, sukaldea eta eskegitokia. Trastelekua. Garajea aukeran (17.500 €)
199.500€ C.E.E=F



PLATERUEN PLAZA
120 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Trastelekua eta garajea.
C.E.E.=F



ASKATASUN ETORBIDEA
120 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 2 kotxerentzako garajea.
312.000 € C.E.E=E



ANBOTO
Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. Bizitzen sartzeko moduan.
190.000 € C.E.E=E

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

DURANGO: Antso Eztegi. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobe.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baseri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baseri ikusgarria, berrizatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baseri ederra. Berrizatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berrizatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

//BULEGOAK ALOKAIKUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 62 m²
4 logela
JUAN DE ITZIAR: Egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ekialdea/mendebaldea). Pisu altua. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Berdeguneetatik gertu, eta herriko sarrera/irteera bat ere hurbil dago. Hobekuntzak behar ditu.
105.000 € C.E.E: F



DURANGO 104,54 m²
4 logela
TORRE DE LARIZ: Egongela, sukaldea, jangela 4 logela, despentsa eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Leku onean kokatua (Santa Ana) Hobekuntzak behar ditu. BI APARTAMENTU BIHURTZEKO AUKERA. INBERTSIO GISA IDEALA.
175.500 € C.E.E: E



DURANGO 80,30 m²
3 logela
ASTEPE: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, galeria eta eskegitokia. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 6,5 m²-ko trastelekua eta 10,80 m²-ko garajea. Hobekuntzak behar ditu.
224.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 90 m²
3 logela
ZABALE: (1.989. urtean eraikia) Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Etxebizitza altua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzueginek. Egoera onean. Garajea.
349.000 € C.E.E: Bidean



MUNTSARATS 70,4 m²
2 logela
ARLOZABAL: 70,4 m². Galeria, 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. (Zonalde berdeak.) 7,50 m²-ko trastelekua eta 14,29 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.
189.000 € C.E.E: Bidean



MATIENA 89 m²
3 logela
TRAÑABARREN: : Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta 38m²-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea): Argitsua. Leku onean kokatua. 12 m²-ko trastelekua. Egoera onean dago baina berrikuntzak behar ditu.
229.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000€ / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua.

Ganbara. Garaje itxia aukeran. **LEHEN 230.000 € ORAIN 190.000 € / E.E.Z=E**

MONTEBIDEO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **275.000€ / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZO: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZO: Berreraikitze baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

//GARAI

MOMOITIO AUZO: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

OTXANDIO

ZELAIETA AUZO: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **348.000€ / E.E.Z=BIDEAN.**

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

Botikak

BARIKUA, 4 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

NAVARRO
ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN DIAZ
URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

UNAMUNZAGA
MURUETATORRE 2C - DURANGO

SARRIA
SASIKOA 17, DURANGO

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

DE DIEGO
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BALENCIAGA
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

JAIO-ABENDIBA
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

MELERO, ROSA MARI
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 6 - 09:00-09:00

SARRIA
SASIKOA 17, DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 7 - 09:00-09:00

DE DIEGO
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 9 09:00-09:00

MUGICA
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 10 - 09:00-09:00

BALENCIAGA
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Abenduaren 3an Berrizko Lier Velerdasek urtebete egin zuen. Zorionak bere anaia Gari, lehengusina Izaro eta, batez ere, amama Maribiren partez



Zorionak, **Manex**, zure zazpigarren urtebetetzeari! Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Muxu bat Elorriotik aitita, amama eta Eneritzen partez.



Gure etxeko sorgintxuak urteak egiten ditu. Jarraitu zaren modukoa izaten. Izugarri maite zaitugu!



Zorionak, **Unai**! Oso ondo pasa zure egunean. Asko maite zaitugu. Muxu asko familiaren partez.



Zorionak eta muxu erraldoiak Gasteiztik, aitite-amamen eta osaben partez!



Zorionak, zapaburu! 3 urte 3 muxu!



Manexek 2 urte egin dauz! Zorionak etxeko guztien partez, txikitxo!



Zorionak, **Urkotxo**! Ondo pasau eguna! Asko maite zaitugu! Familiakuen partez.



Gure laztana! Zorionak zure urteguneari! Aititeren, amamaren eta osabaren partez. Asko maite zaitugu!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 1° / 8° ☁

ASTELEHENA ↓ 2° / 12° ☁

EGUAZTENA ↓ 8° / 13° ☁

DOMEKA ↓ 1° / 8° ☁

MARTITZENA ↓ 9° / 15° ☁

EGUENA ↓ 6° / 11° ☁

"Atzerrian euskara irakastea oso esperientzia polita da"

Ametz Menika durangarra Etxepare Institutuaren irakurle sareko parte da eta euskara eta euskal kultura irakasten ditu Irlandako University College Cork unibertsitatean



Ametz Menika Bernas

Euskal Filologian lizentziatua

DURANGO | 1991

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Ametz Menikak argi zuen Euskal Filologia ikasketak amaituta atzerriara joan gura zuela, eta Etxepare Institutuak atzerrian euskara irakastea emandako ikastaroa egin zuen. Etxepare Institutuak hainbat herrialdeetako unibertsitateekin ditu hitzarmenak munduan zehar, eta Cork-era joateko aukera sortu zitzaionean, durangarrak zalantzarik barik aurkeztu zuen bere burua euskara eta euskal kulturako irakurle izateko.

Euskara eta euskal kulturako irakurle zara. Zer esan gura du?

Euskara eta euskal kultura mundura zabaltzea da Etxepare Institutuaren helburua. Eta horixe da irakurleon lana, neurri batean. Euskara

eta euskal kulturaren zelanbaiteko enbaxadore gara, erreferentzia bat. Euskara irakasten dut, hiru maila desberdinetan, eta euskal kulturako beste ikasgai bi ere ematen ditut. Horrez gainera, euskal kultura bultzatzeko ekintzak antolatzeko ardura dut. Hiru urte egoteko aukera dut.

Zenbat ikasle dituzu?

Unibertsitateko ikasgaian ikasle bi baino ez ditut izan, eta unibertsitateetatik kanpora ematen den helduentzako ikastaroan beste bi. Batzuk zerotik hasten dira eta beste batzuek badute oinarri bat, ikasle-truke egitasmoen bitartez Euskal Herrian izan direnek. Euskal kultura ikasgaian askoz ere ikasle gehiago dago. Eskolak inge-

leseaz ematen ditut eta errazagoa da eurentzat. Ia hamar ikasle izan ditut. Dena dela, asko aldatzen da ikasturtearen arabera.

Euskararen eta euskal kulturaren zelanbaiteko enbaxadore gara hemen, erreferentzia bat

Zerk motibatu ditu euskara ikastera?

Ipar Irlandatik hurbil bizi den ikasle bat izan dut, adibidez. Irdandako gatazka gertutik bizi izan duena, eta zelanbait Euskal Herriko egoeragaz identifikatuta sentitzen

dena. Hizkuntza gutxituek edo Euskal Herriko egoerak erakarrita, parekotasun bat ikusita animatzen dira batzuk. Bestalde, Euskal Herrian familia duen ikasle espainiar bat ere izan dut. Familiakoekin berba egiteko ikasi gura du euskara.

Zelan egokitu zara hango ohituretara?

Oso eroso sentitu naiz hasieratik. Ezagutu ditudan irlandarrak gertukoak eta atseginak sentitu ditut. Bizitza erritmoak harritu egin nau, eta horretara egokitzea kostatzen ari zait. Guk bizi erritmo azkarragoa dugula sentitzen dut, estres handiagoa. Baliteke nire izaeragaitik izatea. Eguraldiagaz egon daiteke lotuta. Neguan sartuta gaude, 16:30ean gaua da, eta Euskal Herrian ere euria egiten duen arren, hemen euriagaz batera haizea ere badabil. Askoz zakarra da eguraldia.

Irlandarren bizitza erritmoak harritu egin nau, eta horretara egokitzea kostatzen ari zait

Topatu duzu antzekotasunik euskaldunen eta irlandarren artean?

Paisaia dela, eguraldia dela eta bizitako gatazka egoerak direla, pentsa genezake antzekotasunik ditugula, baina ez zait iruditu horren antzekoak garenik. Hizkuntza gutxitua dugun aldetik ere jarrera desberdina dugu. Banekien irlandarren egoera askoz okerragoa zela. Baina harritu egin nau oinarrizko berbak ere ez erabiltzea. Baina, egia esan, hiru hile baino ez ditut egin hemen.

Zelako esperientzia izaten ari da? Erronka handia izan da?

Ama hizkuntza dut euskara, euskal filologia ikasi dut eta atzerriara joateak beti erakarri izan nau. Eta atzerrian euskara irakastea oso esperientzia polita da. Euskal kultura oso zabala da eta hori guzti hori transmititzea ardura eta erronka handia da, hala sentitzen dut. Gainera, unibertsitatean, ingelesez. Apurka-apurka geroago eta erosoago nago. Aukera eta erronka handia da.

Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren Jubilatua/ Irakaslea



Handiak txikia zapaldu

Eguna argitzen ari zela txanxangorri umil eta goxo bat jarri zitzaidan leihoan niri begira. Negar zotinka zegoen eta galdetzerakoan zer gertatzen zitzaion, txori handi batek, kukuak, bere abian arrautza handi bat jarri ziola eta kumea jaio zenean bere kumeak habiatik bota zitziola eta hor ibili zirela bera eta bere bikotekidea, eten gabe, janaria garraiatzen, kume hori handi egin eta hegan, habiatik alde egin arte adierazi zidan. Horrela geundela iratzargailua dantzan hasi zen eta ohartu nintzen amets bat izan zela. Amets horrek pentsa arazi zidan txanxangorriari gertatu zitzaiona gure gizartean ere eguneroko ogia dela. Eskolan edo kalean indartsuak makala zapaltzen duela bullying egin.

Gizon batzuek emakumeak jipoitzen dituzte eta batzuetan erail, beraien jabeak izango balira bezala.

Enpresetan edo politikan goi kargua duten batzuek bere azpikoa mespretxatzen dute.

Sare sozialetan mehatxuak, mespretxuak eta faltsukeriak non-nahi.

Zoritxarrez, horrela luze jarraituko nuke.

Gizon-emakume guztiok amaren sabeletik jaiotakoak bagara, biluzik, blai-blai, ahul eta menpekotasun guztiekin, gero, zergatik bihurtzen gara hain maltzurak?

Inor ez da inoren jabea, orduan utzi bakean lagun hurkoari eta egin dezagun gure bizitza elkarri lagunduz eta ahal bezain zorionsu.

Ea tortillari buelta ematen diogun eta elkarri lagunduz eta elkar "ez zapalduz" gizartea bide onetik bideratzen dugun, eta mundu honetan gauden bitartean egin dezagun maitasuna eta ez gerra. Hala bedi!

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa